

Bira eta jira

Azken garaian entzun dut jendea ez omen dela joaten liburu aurkezpenetara, edo hitzaldiek ez omen dutela entzulerik erakartzen

JON KORTAZAR



Ez dago esaterik zerk egiten duen liburu bat arrakastatsua literaturan. Ez eta ere zerk uxatzen dituen irakurleak testu batetik. Azken garaian entzun ditut berri kezkarriak liburu aurkezpenei buruz. Jendea ez omen dela joaten liburu aurkezpenetara, edo hitzaldiek ez omen dutela entzulerik erakartzen.

Berri bi. Bira

Lehen berria Euskadi Saria irabazi duen idazle bati buruzkoa da. Liburu berria argitaratu eta eratu zuen aurkezpena Bilboko liburu denda ezagun batean. Ez omen zen inor azaldu aurkezpenera.

Bigarren berria Euskadi Saria irabazi duen idazle bati buruzkoa da. Hitzaldi bat omen zuen Gipuzkoako herri ez txikian, eta gainera euskaldun petoa dena, eta ez omen zen entzulerik azaldu hitzaldi hartara.

Bakanak omen dira kasu horiek.

Baina zerbait gertatzen ari dela esaten duten seinale neurri berean. Urliak esango du formatua (aurkezpena, hitzaldia) zaharkitua dagoela. Berendiak, aldiz, hartu beharrekoak kontuak direla eguraldia, sasoia eta Athleticek (kasu batean) eta Errealak (bestean) partidua jokatzeko duten (ala ez) egun berean eta egoera hori saihestezina dela.

Baina idazle nagusiekin (ez dut izenik emango, baina benetan nagusiak direla, eta ez adinez, aipaturiko idazleak) hori gertatzen bazaigu, ederto gaudela esan dezakegu. Denok izan gara horrelako egoeratan. Ekitaldia hasi aurretik zalantzan izan gara zenbat jende izango ote dugun gure buruari galdezka. Baina inor ez agertzeak etsipena sortzen du, eta eratzailen animoan lotsa. Niri behin hitzaldi batera entzule bakarra azaldu zitzaidan. Hitzaldia eman ordez, ondoko tabernara gonbidatu nuen ardo hartzera.



ADOBESTOCK

Bera pozik. Ni ez horrenbestez.

Berri bi. Eta jira

Aurreko artikulu batean aipatu nuen iritzi zutabe honen helburua zela euskal literaturan gertatzen ari diren aldaketak aztertzea edo aipatzea. Eta kasu bitan ikusi dut joera berria liburu aurkezpenak direla eta.

Idazleek aurkezpen bakarra egin ordez, aurkezpen multzoa aurkezten

ari dira irakurleagoren aurrean. Orain idazleek, kantariak ohi duten antzera, jira bat eratzten dute. Horrelakoa, lehen aldiz, Katixa Agirreri ikusi nion. Eta hari eskatu eta eskuzabaltasunez bidali dit jiraren kartela. Apirilaren 17an Gaubea/Valdegobian hasi eta ekainaren 16an Beasainen bukatuko den jira egingo du 'Barne zerbitzuak' nobela aurkeztuz 'Udaberri Tour' izenpean.

Oso ideia ona iruditu zitzaidan: aurkezpenak banan-banan iragarri ordez, denak batera azaldu, eta horrela deiaren indarra areagotu.

Ondoren ikusi dut antzeko estrategia erabili duela Mikel Sotok bere 'Jon Mirande, herriminez, ezinminez' liburu zabaltzeko. Kasu honetan ez dira aurkezpenak, elkarrizketak baino. Egia da bost horietatik bitan Irati Jimenez egongo dela, eta horrek etxeko kutsua ematen diola elkarrizketari. Mikel Soto apirilaren eta ekainaren artean ibiliko da Iruñea, Gasteiz, Donostia, Bergara, Lakuntza eta Bilbo artean.

Estrategia berria irudi zait eta guztiz jarraitzekoa. Ekitaldi bakar baten ordez, aurkezpen, hitzaldi multzoa agertzea.

Eta fini

Orain urte batzuk idazle ezagun batek idatzi zidan kezkatua; azaldu zidan liburu argitaratu zuela, eta ondoren, ez zela ezer gertatu; argitaletxeak ez zuela nahiko bultzatu eta ea zer egin zezakeen galdetu. Egia da nahiko lan hartzen dutela argitaletxeek liburuak plazaratuz, eta gure plaza txiki honetan ezin dutela zaila dela jarraipena ziurtatu.

Katixa Agirrek eta Mikel Sotok aurkeztu duten kantarien antzeko jirak erabilgarriak dira liburuak ezagutzera emateko, liburu argitaratu ondorengo amasa emateko. Egileak berak dira eta liburu arnasa emateko lehen eragileak.

Amorrua elikatuz

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Fertxu Izquierdok poeta, narratzaile eta kultur eragileak, poema-liburu berria eman du argitara, non gelako intimitatea eta barrikadaren oihartzuna uztartzen dituen. Alde bateatik, kutsu erotikoa duten poemek irakurlearen eszenatoki intimoan kokatzen dute (portzelana-biluztasuna). Beste aldetik, herri kontzientziara igaro eta gerra zibileko familia-memorian, George Floyden heriotzan, Palestinan, gentrifikazioan, besteak beste, jartzen du arreta sutan dagoen munduari men egiteko asmoz. Trantsizio horretan ni eta gu poemetan bizi dira, bikoteak eta kolektiboak sintaxi afektibo bera partekatzen dutelarik.

Lehen zatian poemak zenbaki arabigoz azaltzen dira atzerako kontaketa (15etik Ora) egungo egoera larria lehertzeaz dagoela salatzen. Bigarren zatian, zenbaki erro-

matarrak (1.etik XVII.era), erritmo pausatuagoa izanik. Horrez gain, olerkietan intertestualitate anitza islatzen da, bereziki, musikaren arloan. Tremenda Jauría, Ruper Ordorika, Franco Battiato (hirutan), Billy Bragg, Mala Rodríguez egileek laguntzen diote hats poetikoa kausitzen, Izquierdok memoria kultural bakan baten geruza gisa baliatzen baititu erreferentzia horiek, izaera ezkerrekoa, euskalduna eta mestizoa aldarrikatzeko. Hierarkiak albora utzita, kultura herrikoiaz eta jasoaz berdin jokatzeko du.

Formalki, irudi material eta sentsorialeak – gasolinaren usaina, gomazko kea, oin biluziak –, ainguratzen dituzte Izquierdoren be-

girada kritikoa eta gogoeta. Zenbaitetan ere, espazio tipografikoa bihurtzeko aukera aprobetxatzen du, esaterako, 'Bederatzi' poeman berraztearen bitartez zati-tzen dituen bertsoek interferentzia-seinalea mimetizatzen dute estualdiaren adierazle gisa.

'Gari errearen urrina'k oraindik txingaretan bizirik dagoena dakarkigu: utopia, nahia, amorrua. Horrek guztiak erregai poetiko gisa funtzionatzen du oraindik konpromisoa berresteko.

GARI ERREAREN URRINA FERTXU IZQUIERDO

Pamiela
96 or
16 euro



Kutxa Fundazioa Literatura Sarietara lanak aurkezteko epea zabalik

JAN ECHEVARRIA

Batzuetan, jautzia egin eta gure bizitza alda dezakeen lehiaketa batera aurkezteko ueña iristen da. Bada, idazlea bazara, jakin behar duzu Kutxa Fundazioak euskarazko eta gaztelaniazko eleberririk eta poesiak bere literatura sariaren 47. edizioko oinarriak argitaratu dituela. Lanak aurkezteko epea irailaren 21era arte egongo da zabalik, eta irabazleak 2027ko martxoaren 11n jakinaraziko dira.

Kutxa Fundaziotik adierazi dutenez, «lehiaketa zabalik dago euskarazko eta gaztelaniazko egileek parte har dezaten, beren nazionalitatea edozein dela ere. Espainian bizi beharra dago gaztelaniazko kategorietan parte hartzeko, baina euskarazko kategorietan edozein herrialdean bizi diren pertsonen parte hartu ahal izango dute». Horrela, Kutxa Fundazioak euskararekiko konpromisoa erakutsi nahi du, hizkuntza gutxitua den aldetik.

Poesia modalitatean, errima, neurri eta gai libreko lanak aurkez daitezke, gutxienez



Lanak irailaren 21era arte aurkez daitezke.

800 bertsoak; saria 15.000 euro eta garaikurra izango da. Eleberririk modalitatean, bestalde, gai eta narrazio libreko lanak, gutxienez 150 folioak; eta saria 20.000 euro eta garaikurra izango da.

Lehiaketan saritutako lanak editatu eta argitaratu egingo dira. «Edizio honetan, euskarazko liburu irabazleak Elkar argitaletxearekin jarraituko dugu argitaratzen, ohi bezala; gaztelaniaz, berriz, Pepitas de Calabaza argitaletxea hautatu da eleberririk argitaratzeko, eta Reino de Cordelia poesiarako. Irabazleak 2027ko martxoaren 11n iragarriko dira», amaitu dute.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 Dena zulo berean Eider Rodriguez. Susa.
- 2 Datorren udan ez gara hemen biziko Ane Zubeldia. Elkar.
- 3 Zaldi bat Maddi Ane Txoperena Iribarren. Txalaparta.
- 4 Enarak Bernardo Atxaga. Pamiela.

EZ FIKZIOA

- 1 Harrizko bihotza Karmele Jaio. Elkar.
- 2 Esne berriketari Uxue Alberdi. Elkar.
- 3 Esnatu ala hil Iñaki Goikoetxea / Garikoitz Iurrebaso. Elkar.
- 4 Odola kantari Unai Elorriaga. Pamiela.